

» DISKOA

Jantzi elektrikoarekin



Joxi Ubeda Goikoetxea

Joseba Tapia trikitiarekin lotzea normala da, baina azken urteetan gitarrarekin ere aritu da. Esaterako, *Tximela kapitainaren izarrak* diskoa gitarra akustikoarekin egin zuen, eta *Besamotzak* lan berria gitarra elektrikoarekin grabatu du. Trikitiarekin musikari aparta da, eta gitarrarekin ere ederki moldatzen da.

Bere bakarkako ibilbidean sortutako 11 kantu gitarra elektrikoarekin interpretatu ditu. Kantu horiek *Tximela kapitainaren izarrak* (Zakurraren Biolina, 2013), *Eta tira eta tunba* (Zakurraren Biolina, 2010), *Real Politik* (Zakurraren Biolina, 2006) nahiz *Quebec, hamalau kantu independentziarako* (Gaztelupeko Hotsak, 1999) diskoetan, eta Koldo Izagirre idazlearekin osatu zuen *Apoaren Edertasuna* (Gaztelupeko Hotsak, 1998) diskoan plazaratu zituen.

Kanta politikak dira, eta lan berrian jantzi elektrikoarekin entzun daitezke, indartsuago, baina bizitasuna, zorrotasuna eta gatza eta piperra batere galdu gabe. Ondo gelditu dira gitarra elektrikoarekin, dotore, punteoekin eta bestelako marrazkiekin. Rock talde gisa. Horrela jotzen dute trikitia eta baita pasodoble, reggae, ska eta country kutsuko doinuak ere, modu natural batean.

Abestu eta gitarra elektrikoak jotzeaz egin, Joseba Tapia baxu elektrikoarekin eta eskusoinuarekin aritu da eta programazioaz arduratu, eta grabazio saioetan musikari hauen laguntza izan du: Iker Uriarte (jazpana), Iñigo Telletxea (baxu elektriko), Dani Narbarte (eskusoinua), Jexux Aranburu *Txus* (organoa), eta Maider

Besamotzak

JOSEBA TAPIA

Gaztelupeko Hotsak, 2017



Ansa, Andoni Tolosa *Morau*, Txuma Murugarren eta Bernardo Goietxe (ahotsak).

Besamotzak, diskoaren izenburua izateaz gain, Tapiak duela urtebete inguru martxan jarri zuen proiektuaren izena ere bada: Besamotzak taldea. Diskoan entzun daitezkeen kantak jendaurrean jotzen aritu da Iñigo Telletxearekin, Iker Uriarterekin eta Dani Narbarterekin.

Egunotan, Joseba Tapia & Besamotzak taldea diskoa aurkezteko emanaldiak egiten ari da, eta besteak beste, otsailaren 25ean Elizondon joko du. Joseba Tapiaren kantak jantzi elektrikoarekin bertatik bertara entzuteko eta gozatzeko saio ederrak izango dira. ■

Joseba Tapia musikaria
(Lasarte-Oria, 1964).